

Martuteneko Arantzazuko Ama Ikastolan oporretan daude, baina mediateka abuztua arte dago

Lander Arbelaitz

Kanpotik, lehen begiratuan, Martuteneko Arantzazuko Ama ikastolak itxia dirudien arren, uztailean bertan badago zerbait irekita: Mediateka.

Kulturgune hau liburutegi bat bezalakoa da, baina honek zerbitzu gehiago ditu erabiltzaileentzako. Liburuez gain, CD-Romak, bideojokoak, DVDak, musika, internet lotura duten ordenagailuak eta baita filmak ikusteko telebista bat ere. Otsailean ireki zutenetik, 16 urte arteko edonor joan daiteke bertara.

Goizeko 10:30etik 13:00ra dga irekia eta edonor joan daiteke, ez da derrigorrez ikastolako ikaslea izan behar, ezta Martuteneko bizilaguna ere; edonor etor daiteke, bazkide egin, eta mediatekaz gozatu, argitu digu harrera mahaieko Itziarrek. Hori bai, normala denez, haur eta gaztetxo gehienak Martutene inguruko bizilagunak dira. Eskuorri bat bete, eta horren truke mediatekako karneta jasotzen dute gaztetxoek. Bi astetarako mailegua egin daiteke, eta behin produktua eskuetan izanda, beste bi astez luza daiteke epea. Ikus-entzunezko produktuak aste baterako har daitezke. Otsailean ireki zutenetik, arrakasta izan du proiektuak. Martutenen antzeko beste ezer ez daukate hurrek, eta hona etortzen dira. Uztailean ikasturtean zehar izan ohi zen eskaerak nabarmen egin du behera, baina hori normala da Itziarren ustez. Ikasturtean, klaseak bukatutakoan, jende asko etortzen zen internet erabiltzera, lanen baterako libururen bat hartzera, edo besterik gabe, ordenagailuekin jolastera. Orain, udaran, erabiltzaile gutxiago dituzte, eta gainera, asko aldatzen da gauza eguna euritsua edo eguzkitsua izan. Eguzkitsua denean umeez nahiago izaten dute kalean jolastu. Egunero, batz bestea, 20 pertsona inguru ibiltzen dira.

Iosu Rubio 7 urteko Martuteneko bizilaguna da, eta ia egunero joaten da ordenagailuarekin jolastera. Mediatekatik gehien ordainagailuekin ibiltzea gustatzen zait; batzuetan interneten nabigatzea, baina batez ere, bideojokoekin aritzea, dio futboleko jokoari begirik kendu gabe. Bitartean, Nahia bere amarekin liburu bat irakurtzen ari da. 6 urte ditu, eta orain arte irakurri dituzten ipuinen artean, Xabi Hondartzan izenekoak gustatu zaio gehien.

Mediateka erabiltzeko bazkide izan behar da eta horretarako 16 urte baino gutxiago izan. Hala ere, behin baino gehiagotan hartu izan dituzte hurrek beren gurasoentzat liburuak, kontatu digu Itziarrek irribarrez. DVDak hartzeaz gain, bertan ikusteko aukera ere badu bazkideak. Telebista handi bat daukate eta sei aurikular pare, filmak lagunekin ikusteko inori enbarazurik egin gabe. DVDak ikusteko aukera dute, baina film horiek

euskaraz izan behar dute. Lau ordenagailu dituzte, horietako bi internet erabiltzeko, eta beste bi bideojokoekin jolasteko.

Arrakasta gehien DVDek eta CD-Romek dute. Hauen atzetik, komikiak datoz. Asterix eta Obelix bikote galiarraren abenturak eta Tintin ilehori azkarrarenak eskatzen dituzte gehien. Barbara Parken Junie B. Jones bildumak 10 urte inguruko nesken artean ere arrakasta itzela duela aipatu digu Itziarrek: bada bilduma osoa irakurri duenik ere. Bestetik, gaika sailkatutako liburuetan, animaliei buruzkoek dute harrera onena. Azkenik, arrakasta gutxien musika CDek izan dute.